

**Administrazioa euskalduntzen
Bizkaiko Meatzaldearen bihotzean**

**ABANTO-ZIERBENAKO
ERABILERA PLANA**

ABANTO-ZIERBENAKO UDALERRIA



- Bizkaiko lurralde historikoan kokatuta, Bilbo Handiko eskualdeko udalerria da. Zierbena, Ortuella, Muskiz, Santurtzi eta Galdames mugakide izanik, Kantabriako mugatik 5 kilometrotara dago.
- Gaur egun 9.700 biztanle ditu. Abanto-Zierbenako udalerrian euskaldunen kopurua % 22,4koa bada ere (EUSTAT, 2006), horien artean erabiltzen dutenak oso gutxi dira, %2 baino ez.
- 1995an Zierbena Abanto-Zierbenako udalerritik banandu egin zen eta udalerririk ezin izan zuen Abanto izena gorde, Zaragozako lurraldean izen bereko beste udalerririk bat dagoelako.
- XIX. mendean biztanleri hazkunde handia egon zen meatokien ustiaketeri esker. 60ko hamarkadatik aurrera, berriz, etengabeko beherakada jaso du, meategiak itxi arte. Gaur egungo egitura ekonomikoak industria du oinarri.

**Euskararen erabilera
normalizatzeko plana
2008-2012**

MARKOA

- IV. Plangintzaldian murgildurik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak luzatu dizkigun gomendio eta irizpide abiapuntu hartuta, Abanto-Zierbenako Udalak bere LEHENENGO Erabilera Plana onartu du 2008ko abenduaren 11n.
- Ordura arte, 2007ko uztailean onartutako EBPN eta 2005ean onetsitako euskararen gaineko udal ordenantza izan dira Euskara Zerbitzuaren ardura nagusia.
- Erabilera Planaren bidez, Udal Ordenantzetan somatutako hainbat hutsune bete egin dira eta gaur egun indarrean dagoen legeria aplikatu.
- EBPN eta Udal Ordenantzen kasuan bezalaxe, Erabilera Planaren kudeaketaren ardura Euskara Zerbitzuak izango du. Kasu honetan, euskara teknikariak, zerbitzuko langile bakarra baita.

EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Lanpostu zerrenda oinarri harturik, hauxe da abiapuntuko egoera:

<u>UDAL SAILAK</u>	<u>+HE EGIAZT. LANG. KOP.</u>	<u>-HE. LANG. KOP.</u>
Idazkaritza	4 + 1	1 + 1*
Kontu-Hartzailtza	0 + 1	0 + 1*
Gizarte Ongizatea	1	1
Bulego Teknikoa	4	1 + 1*
Udaltzaingoa	4	1 + 1*
Alkatetza	1	0
GUZTIRA	14 + 2 / 68	4 + 4*

- 68 lanpostuetatik 60 baino ez dago beteta. Datuen arabera, %26,7k egiaztatu du HE bat.
- Hizkuntza gaitasunari dagokionez, berriz, HE egiaztatu dutenez gain, oso gutxi dira euskara ikasi dutenak. Hortaz, erdarara jotzen dute euren lana egiteko.
- HE egiaztatu ez dutenen artean 4 adinagatik salbuetsitakoak dira. Beste lauren artetik, bik DD igarota dute eta beste biek igaro barik.

METODOLOGIA

- Euskarri metodologikoak: **komunikazioa** eta **sentsibilizazioa**
- **KOMUNIKAZIOA:**
 - Atal barruko komunikazioa* ardatz hartuta, atalburu bakoitzak planean parte hartuko duen langile bakoitzari euskaraz burutu beharko dituen funtzio komunikatiboen berri emango dio.
 - Langilearen sormena* bultzatuko da dagokion funtzio komunikatiboa euskaraz garatzeko gai denean.
 - Euskarazko *sareak areagotuko* dira.
- **SENTSIBILIZAZIOA:**
 - Kalitatezko lana* da bi hizkuntzetan eskaintzen dena. Zerbitzuak hobera egingo du.
 - Ohitura aldatu* behar da. Euskara erabiltzea arrunt bihurtzeko ahalegina egin behar dugu.
 - Motibazioa* landu behar da. Euskara Zerbitzua izango da motibatzeaz eta laguntzeaz arduratuko dena, jarraipen pertsonala eginez.

HELBURUAK

- **HELBURU NAGUSIA:**

2. helburu mailakatuarekin bat eginez, administratuari *zerbitzua euskaraz* eskainiko zaio, ahoz eta idatziz; *arreta berezia* eskainiko zaie, halaber, *gazteriarekin harreman zuzena duten sailei zein gizarte-mailako administrazio-atalei*. Atal orokorretan ere mikroplanak egiteko aukera egongo da.

- **HELBURU OROKORRAK:**

Euskararen ahozko erabilera areagotu

Euskararen idatzizko erabilera areagotu

Irudi korporatiboan euskararen erabilera sustatu

- Helburu orokorretara heltzeko **neurri “orokorrak”** ezarri ditugu, hots, berdinak jendaurreko ataletan, berdinak gizarte-mailakoetan, atal orokorretan eta atal berezietan. Atalak bereiziko dituztenak ekintzak eurak izango dira, kasuan kasu langile bakoitzari ezarritakoak.

ATAL ELEBIDUNEN IZENDAPENA

- 86/1997 Dekretuaren arabera atal elebidunak izendatzeko baldintzak betetzen dituen atal osorik ez dago Abanto-Zierbenako Udalean. Hori dela eta, azpiatalekin lan egitea proposatu da. Hauek dira, bada, izendapenak:

ADM. AZPIATALAK

LANGILE KOPURUA

Erregistroa	1
Kultura	1
Giz. Ong. Harrera	1
Udaltzaingoa	4
Alkatetza	1
Liburutegia	1
Jakinazpenak	1
Adm. Prozed.	1
Kontu-hartz. Kontab.	1
Lan anitzak	4
GUZTIRA	16

- Hauek izango dira planean parte hartuko duten langileak, hortaz, Abanto-Zierbenako Udalean euskararen erabilera bermatuko dutenak.

BALIABIDEAK

- Euskara Plana garatzeko, udal langileek honako baliabideak izango dituzte eskura:
 - Aholkularitza zerbitzua (ahozkorako zein idatzizkorako)
 - Hiztegi terminologikoak, testu zuzentzaileak eta baliabide informatikoak
 - Mahai-gainekoak
 - Itzulpen zerbitzua erabiltzeko jarraibideak
 - Trebatze-saioak edota laguntza pertsonalizatua

JARRAIPENA

- Erabilera Planean zehaztutako ekintzen jarraipena JARRAIPEN BATZORDEAren esku egongo da. Hau planean parte hartzen duten langileen ordezkarien harreman-organoa izango da. Izan ere, Batzordea osatzen dutenak honako hauek dira:

Euskara Zinegotzia

Giza Baliabideetarako Zinegotzia

Euskara Teknikaria

Atalburu guztiak (6)

- Jarraipen Batzordea Erabilera Plana garatu baino lehen bildu zen lehenengo aldiz kideen iritzia ezagutzeko eta hauek planean txertatzeko; Plana onartu eta gero, berriro bildu da planaren zehaztasun guztiak aztertzeko, ekintza zehatzak garatzen hasteko eta komunikazio plana eratzeko.
- Halaber, atalburu bakoitzak bere ardurapean eta euskara planean murgilduta dituen langile zein euskara teknikariarekin batera bilera egin dute langileek euskaraz garatu behar dituzten jardunak aztertzeko eta jarraibideak emateko.
- Jarraipen Batzordeak sortutako txostenak oinarri izango dira Euskara Planaren ebaluazioa egiteko.

EUSKARA ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

- Hizkuntza ofizialen erabilera bermatze aldera, Abanto-Zierbenako Udalak, Erabilera Planaren bitartez, *euskara erabiltzeko irizpideak* onartu ditu. Hauek udal barruko komunikazioetan euskararen erabilera bermatzeaz gain, herritarrekiko harremanetan euskarari egin behar zaion tratamendua ere zehazten da.
- Irizpideok langileei ezagutaraziko zaizkie kasuan kasu zer egin behar duten jakin dezaten. Horrezaz gain, irizpideen **eskema orokorra** sortuko dugu eta departamentuburuuen eskariz, sail guztietako **iragarki-tauletan** eskegiko da.
- Euskara Zerbitzua irizpideen betetze mailaz arduratuko da Jarraipen Batzordearen laguntzarekin.

EUSKARA IKASTEKO BAIMENAK ETA BALDINTZAK

- Abanto-Zierbenako udal langileek euskara ikasteko baimena izango dute, baldin eta horretarako Euskara Planean zehazten diren baldintzak betetzen badituzte.
- *Baimenak* UDALHITZen zehaztutakoak izango dira. *Baldintzak*, berriz, udalak ezarritakoak.
- *Prozedura* bi jarraitu ahal izango dituzte langileek, IVAP-HAEEren bitartez edo euren kabuz aukeratutako moduan. Edozein kasutan ere, asistentzia eta aprobetxamendua izango dira baimenak ematen jarraitzeko giltzak.

ABANTO-ZIERBENAKO UDALA: ESKAINITZA-ESKARIA

INDARGUNEAK

- Beteta dauden lanpostuetatik % **26,7k** **hizkuntza gaitasuna du** zehaztutako lanjardunak euskaraz garatzeko.
- Lanpostu horietatik gehienek **herritarrekiko harreman zuzena** daukate.
- Gero eta gehiago dira **aholkularitza zerbitzua** erabiltzen duten langileak.
- Langileekin egindako batzarraren ondorioz, hauek **egingarriztat** hartu dituzte hartutako neurriak.
- Komunikazio kanpaina** udaletxearen barruan oso **eraginkorra** izan da.

AHULEZIAK

- HE egiaztatu ez dutenen artean **adina** eta **ezagutza falta** kontrako faktoreak dira. Atal batzuek erdaldun izaten jarraitzeko aukera bakarra daukate.
- Abanto-Zierbenako herritarren artean **eskaera oso txikia** da. Gutxi dira udaletxera euskarazko zerbitzua eskatzera hurbiltzen direnak. Batez ere, guraso gazteak izaten dira.
- Udal atal gehienetan dagoen egoera linguistikoaren **desorekak** euskaraz lan egiteko aukerak murrizten ditu, nahiz eta langile askok aldeko joera duten.

EUSKARAREN ETORKIZUNA ABANTO-ZIERBENAN

- Abanto-Zierbenako udalerrian GAZTEAK baldin badira euskararen etorkizuna, administrazioaren eremuan ere horietan dugu itxaropena jarrita. Horiek izango dira etorkizunean euskarazko zerbitzua eskatzera etorriko zaizkigunak, eta ordutik aurrera, administrazioaren barruan sortutako neurri guztiak, benetan, martxan ipintzera bultzatuko gaituztenak.